


## HONDARRIBIARRAK AMERIKETARA, XVI. MENDEAN

Amerika deituko zen Luberria aurkitzetik 500. urtera, hainitz ospakuntza ezagutu ditugu 1992. urte honetan eta hori gogoan harturik bijoaz lerro hauek, baina Hondarribiara mugaturik.

Aspaldi Lasurtegi eta Lhandek euskal emigrazioaz lan bikainak osatu zituzten, gai honetaz aritzen garen guzian oroigarri zaizkigunak. Gainera, baita ere, oroi, Pierre Lhandek mende honen hasieran idatzi zituen eleberririk erromantikoetarik bat, *Mirentchu* deritzana, lehen kapitulutik Hondarribian kokatzen dela, non berritu zuen Justitz etxearen kondairea Nafarroako Santxo Abarkari leporatzen zaion "Gustiz Ederra" esaldiaz oinarriturik eleberririk pertsonaia nagusiaren deituratzat hartuz.

Baina orain aipatuko dudan zerrenda labor honek ez du horiekin zerikusirik. Hemen, bosgarren mendeurrena bide dela Ameriketara joan ziren lehen hondarribiarren izen-deiturak eman nahi ditut, Sevilla-ko "Casa de Contratación" delako artxibategitik osaturiko *Catálogo de pasajeros a Indias*-en sailkaturik datozenaren arabera. XVI. mendean, "Indiak" deskubritzetik laster haruntza abiatzeko ausarta behar zen izan.

Hara hemen, urtez-urte, emigrante haien izen-deiturak eta gainerako oharrak katalogoan azaltzen diren arabera:



- 1534. urtean, Juan Ochoa apezka, Nicaragua-ra.
- 1538an, Juan Sanchez Benesa, ez du jartzen nora joan zen.
- 1582an, Juanes de Aristoy, Peru-ra.
- 1594an, Juan de Aduna, morroi, baina ez du jartzen nora.
- 1594an, Carlos de Iburguen eta Catalina de Alcega, senar-emazteak, Nueva Española (oroi Nueva España orain Mexico dela).
- 1594an, Juan de Chaves, bere familiarekin (emaztea Toledokoa) C. de Iburguenen morroi, Nueva Española.
- 1594an, Catalina de Echevarria, Nueva Española neska.
- 1594an, Gracia de Gayaz, Nueva Española neska.
- 1594an, Sancho de Ubilla, Nueva Española morroi.

XVI. mende hortan joanak ziren hamar pertsona horietatik zazpi dira 1594ko urte berean joanak, ez dakigu "amerikak egiteko" pozean elkar girotzeagatik ala hemengo krisialdiren bategatik.

Izen-deiturak agiri haietan agertzen diren bezala utzi ditugu, zeren ez baita erraza jakitea han bertan ere behar bezala jasoak dauden.

**Juan San Martin.**

### IRAGARKIAK

# OTXOÀ

JANARIDENDA

BARAZKI, FRUTA ETA  
HORRELAKOETAN  
AUKERA HANDIA

HERRI GUZTIARI  
ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON

San Pedro, 47  
Telf. 64.16.84  
HONDARRIBIA

EXPERT

# GEURIA

-

**X**xey

MOBILIARIO DE COCINA Y BAÑO

**ZORIONAK!**

IRUN  
Fuenterrabía K.  
Telf.: 61 50 08

HONDARRIBIA  
San Pedro, 8 - 3  
Telf.: 64 33 86

# EROSLE

SUPERMERKATUA

Zorionak



Santiago kalea  
HONDARRIBIA